

Goierri tarra

359. zenbakia 2009ko apirilak 24

Mankomunitatearen 600. urteurrenean

GANADUAREN ZAIN DAUDE ENIRIO-ARALARKO LARREAK

ARGI
OPTIKA

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarrizko osagaia

Ε Μ Ψ Ε

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA Salvatore Ferragamo EXTÊ ROMEO GIGLI

efektone

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

GoierriHartxo

Goierriko haurren aldizkaria
15. zenbakia zure esku



Osasuntsu bizi

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

**Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN**

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

Goierritarra
diruz laguntzen duten
erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

- 4. Iritzia:** Jon Ordoñez.
- 5. Ingurugiro txokoa:** Argi kutsadura (II)
- 6. Euskara txukuntzen:** Denetik (XVIII)
- 7. Aholkua:** Ahoaren estetika
- 8. Erreportajea:** Enirio-Aralar Mankomunitateak 600 urte.
- 14. Goierritar berriak:** Mariela Perez kubatarra.
- 18. Erreportajea:** Antzar korrikalariak.
- 22. Erreportajea:** Kanta kantari Lazkaon.
- 26. Non zer.**
- 30. Argazki zaharra.**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Jon Ordoñez

*Jarri naiz
azkenean ni ere
facebooken, eta
Interneten ere
analfabetoa
naizela jabetu
naiz, google eta
posta
elektronikoa
direla
irakurtzen
dakizkidan
bizki bakarrak.*

Kartoizko burua

Analfabetoak gara. Ez zentzu txarrean, baizik eta heziketa falta dugulako zentzuan. Irakurtzen eta idazten badakigu, baina beste gauza askotan hezigabeak gara, eta ez du axola etxeko lanetan, kulturean, mekanikan, musikan, historian edo errentaren deklarazioa egiterakoan izatea; batetik duguna falta dugu bestetik. Ni ere jabetu naiz zertan naizen orain analfabetoa, zer beste gauza batean, alegia. Facebook entzun nuen lehen aldian erreparatu ere ez nion egin parean nuenak esaten zidanari: lagunak, argazkiak, sarea... Tira ba, jarri naiz azkenean ni ere facebooken, eta Interneten ere analfabetoa naizela jabetu naiz, google eta posta elektronikoa direla irakurtzen dakizkidan hizki bakarrak.

Jendearen egunerokotasuna, bizipenak (bizipozak, batik bat), oporrak, afariak, parrandak eta bestelakoek interesa sortu didate, batez ere, gehienak aspaldi ikusten ez ditudan lagunak direlako. Gauzak zer diren: bigarren egunerako orain dela hamar urteko dozena erdi bat lagun banituen facebooken nire berri izan nahian. Eta ez dakit utzikeria ez ote den, izan ere, sakelako telefonoa eskutik erori ere egiten ez zaigun garai honetan nahi duenak nahi duenaren berri izatea gauza erraza dirudi. Baina ez da horrela, zer bizi izan dugun ahaztu egiten zaigulako. “Argazkia jarri behar duzu”, esan dit lagun batek, eta hasi naiz ni argazki bila.

Kartoizko kaxa zahar bat hartu eta hasi naiz orduan argazki bila. Konturatu naiz orduan, konturatu naizenez, zenbat gauza ahazten zaizkigun urteak pasa ahala, zenbat momentu eta zenbat per-

tsona. Nituenik ere ez nekien argazkiak agertu zaizkit, egon nintzela gogoratzen ez nuen lekuetakoak eta ezagutu nituela, baita ondo ezagutu ere, konturatzen ez nintzen lagunaren ondoan ateratakoak. “Zenbat urte izango ditu Barricadaren kasette honek?”, pentsatu dut neretzako nire eskua kaxaren azkenara iritsi denean. Gero, ia hogeitaz urte dituen radio-kasetearen bila ari nintzela, funtzionatuko zuelako esperantzarekin, aitaren Renault 18 familiarraz gogoratu naiz. Gaur egungo autoak ez bezala, horrek bazuen radio-kasetea. “Tira, ez naiz orduan horren atzean geratzen ari”. Ez ditut aurkitu, ordea, auto horri orain dela zortzi bat urte ateratako argazkiak.

Barricadak 1991n argitaratutako Porinstinto kasettea Sony zahar horretan jarri, eta ordenagailura joan naiz. Dagoneko 2009. urtean ordenagailuan ere argazki digital zaharrak topatzeko gai gara, eta hasi naiz horien bila. Ari nintzela, pentsatu dut ez dela harritzekoa orain poztea, bapatean, orain dela hamar urte izan genituen lagunaren berri izandakoan, nahiz eta denbora horretan bere sakelakoaren zenbakia edo posta elektronikoa- ren helbidea galdetzea ere okurritu ez zaigun. Argazkietaz ahazten gara, eta gure bizitzan bizi izandakoa ere ahaztu egiten dugu, halako egunetan non egon ginen bestelako pertsona horrekin. Aurrera begiratzeko beharrezkin (bestela ezin da) edo bizi dugun egunerokotasunaren intentsitatearekin oroitzapenak bata bestearen gainean pilatzen ditugu. Eta tira, ni behintzat poztu naiz facebook zer den ikasi eta buruan daukagun kartoizko kaxa hori astindu dudanean.

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

www.mondragon.edu/prest

UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

MAIATZAK 7 - 17:30 osteguna | **MAIATZAK 21 - 17:30** osteguna 2. zikloa

ARRASATE-MONDRAGON AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MAIATZAK 14 - 18:00 osteguna

OÑATI AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

MAIATZAK 7 - 18:00 osteguna | **MAIATZAK 21 - 18:00** osteguna 2. zikloa

IRUN AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidaso.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MAIATZAK 9 - 11:00 larunbata

ESKORITZA AULA MAGNA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu


Argi kutsadura (II)

Argi kutsadurak sortzen dituen kalteak eta honi aurre egiteko bideak aztertzeke ikerketa ugari egin dira munduan. Aranzadi eta CADEM-EVE taldeak 2006. urtean "Kaleko argien instalazioetan argi kutsadura eta energiaren zentzuzko erabilerari buruzko oharra" txostena egin zuten, Tolosa eta Legazpi herrietan egin zen. Dokumentu osoa bertso digitala lor daiteke ingurugiro@gipuzkoa.net helbidean. Eskualde batzuetan, (Katalunia, Nafarroa, Balear uharteak), udal araudia egiteko garaian gaueko zerua kontutan izan dute.

Argi kutsadura murriztearen onurak

Kutsadura mota honi aurre egiteak honako onurak izango lituzke:

- Energia aurreztearekin batera gutxiago kutsatuko genuke.
- Argitze sistema egokitu eta modernizatuz, argitze maila egokia mantendu daiteke eta faktura elektrikoan %25-40 aurreztu.
- Ondorioz, energia hori sortzeak eragindako kutsadura eta energia elektrikoa kontsumoa murriztuko da.



- Hondakin toxiko gutxiago sortuko lirakeke, lanparetako metal astunak, merkuriozkoak adibidez oso kutsakorrek baitira.
- Argi intrusioa murriztu litzateke etxeetan.
- Gaueko ingurumena errespetatu eta zeru izar-tsua berreskuratu genuke.

Argi kutsadura murrizteko irizpideak

Argiztatzeetan arrazionaltasun eta eraginkortasun irizpideak erabiliz erraz murriztu daiteke argi kutsaduraren %80. Irizpideak hauek dira:

- Argitzeko farolak beherago ipiniz potentzia gutxiago behar da eta ez du etxeetako bizilagunei eragozpenik sortzen. Farolen diseinua aldatuz argia goitik behera zuzenduz egon beharko luke, horizontalaren gainetik ez da argirik igortzen.
- Tokiaren arabera argi potentzia egokia eduki.
- Zerurantz ez zuzendu argitze fokoak.
- Argi apaingarriak gaueko hamabietatik aurrera itzaldtu.
- Sodio lurrinezko lanparak erabili, eraginkorragoak dira eta ez dira besteak bezain kutsakorrak.

Laburbilduz

Argi kutsadura argitze desgokiaren eta gehiegizkoaren ondorioa da. Arazoa konpontzeak onurak ekarriko lituzke ekonomikoki, ekologikoki eta gaueko zeruaren edertasuna berreskuratu genuke, gure herrietako argitze mailari eragin gabe.

Koro Irazustabarrena

JAKIN BEHARREKOAK

Europako Parlamentuak **izurriteen aurkako 22 substantziek osaturiko zerrenda** onartu du Europar Batasunean debekatzeko. Substantzi hauek minbizia sor dezakelakoan eta ugalketan eragin dezakeelako. Etorkizuneko araudiak airezko fumigazioak debekatuko ditu pozoina nekazal soroetat gain inguruko herri, lur eta ibai bideetan zabaltzen delako.

II. Sukaldaritza Elkarrizketak, Donostia. Carlo Petrini, SlowFood sortzailearen hitzak: "Mundua ez dago krisi ekonomikokoan, balio krisi batean baizik. Kontsumo politikak, bere abiadurarekin, beharren sorrera eta xahutzearekin, arima kentzen digu. Elikagaien ekoizpena Naturaren hondamendiaren ardura da". Nekazal guneak hiriak baino kutsatuagoak daude, mende batean bio-aniztasunaren %80 galdu dugu, Ura etorkizuneko gerraten arrazoia izango da, nekazaritza deslokalizatuta dago eta oinarritzko gaien kalitatea jaitsi egin da. Sukaldariak Gastronomiaren hezkuntza planetan sartzearen beharra azpimarratu dute. Hezkuntza oinarritzkoa da elikadurak eta beraien atzean dagoen lana aintzat hartzeko.

LIBURUA

'Cosecha Robada' Vanda-na Shiva, Ed. Páiros. Transnationaleen eskutik elikagai eta nekazal sistemen suntsiketaren historia da. Aldi berean, Herri mugimenduen aurka nola egingen duten adierazten da.

Denetik (XVIII)

Maizpide
euskaltegia

Kotxen ez ba, autobusen jungo gea!

Ohituta gaude Goierriko kaleetan azken aldera horrelakoak entzuten, oso txukunak izan ez arren. Kontua da garraio-bidea zein izango den adierazteko beste modu bat bada, betitik erabili duguna:

- ✓ Valentziako final horretara, autoz ez bada, autobusez joango gara! Gora Athletic, dedio! (zuzen)
- ✗ Valentziako final horretara, autoan ez bada, autobusean joango gara! Gora Athletic, dedio! (oker)
- ✓ Bizikletaz etorri nabi ez badun, etor hadi oinez, Prantxika! (zuzen)

Norbaiten ibilgailua adierazteko bada, bai, izenburuan bezala esango dugu:

- ✓ Nirea garajejan dagoenez, aitarene autoan joango gara Donostiara (zuzen)
- ✗ Nirea garajejan dagoenez, aitarene autoaz joango gara Donostiara (oker)

Saiatu beharko genuke lagunari, familiartekoei... gaizki erabiltzen badu zuzentzen, gure euskararen onerako izango da eta!

Epaitegitik alde eginda ez duzue ezer lortuko, polizia-etxeren batean lotan geratu beharra ez bada. Unean uneko arazoak baino gehiago izango dituzue aurrerantzean



**Mafia mexikarreko Zeles eta Juanita...
helikopteroz ihes egiteko prest!**

Ertzainen “komisaldegia”?

Ertzainen basea, ertzainen komisaldegia... ez dira gutxi izango ertzaintzako etxeak izendatzeko erabiliko genituen izenak. Kontua da Euskaltzaindiak ertzain-etxe hitza erabiltzeko gomendioa egin duela. Beraz, halaxe erabiltzen ahalegindu beharko genuke aurrerantzean.

- ✗ Ertzainen komisaldegira eraman zuten autoa lapurtu zuen gizona (oker)
- ✗ Ertzainen basera eraman zuten autoa lapurtu zuen gizona (oker)
- ✓ Ertzain-etxera eraman zuten autoa lapurtu zuen gizona (zuzen)

Eta polizia guztiak ertzainak ez direnez, gainontzekoak izendatzeko polizia-etxe erabiliko dugu euskara batuan:

- ✗ Sevillako komisaldegiren batean omen dute atxiloturik Marta izeneko neskatilaren hiltzailea (oker)
- ✓ Sevillako polizia-etxeren batean omen dute atxiloturik Marta izeneko neskatilaren hiltzailea (zuzen)

Arazo “puntualak”?

Ez da oso txukuna goiko esaldi horretan gaztelaniatik hartutako “puntual” hori! Esan nahi dugunaren arabera, modu batera edo bestera erabiliko dugu euskaraz.

- ✗ Arazo puntualak izanez gero, laguntzeko prest dagoela esan du Demetriok (oker)
- ✓ Unean uneko arazoak izanez gero, laguntzeko prest dagoela esan du Demetriok (zuzen)
- ✗ Gai puntual batzuk bakarrik aipatu ditu 5. solairuko emakumeak (oker)
- ✓ Gai konkretu edo jakin batzuk bakarrik aipatu ditu 5. solairuko emakumeak (zuzen)

Baina:

- ✓ Izeba Maritxu puntuala da oso! (zuzen)

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Beasaingo ertzain-etxeak hogeit bat urtetik gora izango ditik, Martzelino!
2. Hegazkinez joateari izugarriko beldurra dio Antselmok.
3. Joxeren kamioian joan gintunan Altsasura.
4. Josu oso puntuala da. Garaiz iristen da beti!
5. Puntualtasuna da Joxeparen bertuteetarikoa bat.

OHARRA: denak zuzenak, alajaina!



kutxa

Gaur egun estetikari garrantzi handia ematen diogu. Telebistan eta filmeetan agertzen diren famatuak moda markatzen dute. Honek gizartean eragin handia du eta ondorioz, geroz eta gehiago egiten dira estetiko tratamenduak, estimatzen dugun pertsona famatuaren antza gehiago edukiz. Ez bakarrik azaleko tratamenduak, edo ilea apainduz, baita ere gure ahoko irribarra politagoa edukitzeko ahal duguna egiten dugu.

Tratamendurik egokienak

Lehendabizi begiratu behar da bakoitzak zer nolako emaitzak lortu nahi dituen eta bere ahoaren egoeraren arabera zer egin daitekeen. Hortik aurrera tratamendu ezberdinak daude.

1. Zuritasunaren tratamendua: Edonork daki hortzak zuritzeko tratamenduak daudela, telebistari begiratu iragarki asko agertzen dira gai honetaz hitz egiten. Lehendabizi begiratu behar da bakoitzaren hortzek zer nolako kolore oinarri duten. Oinarizko lau tonok daude: horia, gorria, grisa eta marroia. Hori begiratu ondoren jakingo dugu tratamenduarekin, gutxi gora behera, zein txuri kolore lortu daitekeen. Zuritasunaren tratamendua hortz klinikan egin daiteke edo baita etxean. Hala ere, kontutan izan behar da ez badira behar diren neurriak hartzen arazoak

agertu daitezkeela. Hau da, hortzen sensibilitate oso minkorra izanez.

2. Karilak: Zuritasunarekin ez bada nahikoa edo gure hortzen forma aldatu nahi badugu, beste aukera karilak ipintzea da. Karilak portzelana edo erretxinarekin egindako tapa batzuk dira.

3. Fundak: Gure hortzak oso gastatuta edo ahulak edukitzen baditugu portzelanazko fundak ipini ditzakegu. Era honetan, gure hortzetan estetika egoki bat lortuko dugu eta aldi berean, lehen genituenak baino indartsuagoak izatea.

Ohiko galderak

1. Tratamendua betirako al da? Betirako ez dago ezer eta ahoarekin egiten dugun lanarekin (jatea) gutxiago. Lortu dugun hortzen zuritasuna mantendu nahi badugu, badaude hortzetako pasta batzuk, baina ez dira oso eraginkorrak. Hortaz urte batzuk ondoren beste zu-

ritze tratamendu bat egin beharko dugu. Karila edo fundekin ezberdina da. Ondo zainduta, urte askoan eduki ditzakegu ahoan, baina portzelana gastatzen joango da.

2. Fundekin denbora pasatuz, entzian marra gris bat ikusten da. Hori konpondu al daiteke?

Ikusten dugun marra grisa fundaren metala da. Hori nabarmena ez izateko badago portzelana mota bat (zirkonioa). Portzelana honekin, ez da behar fundaren azpian metala ipintzea eta estetika hobeago da. Hori bai zirkoniozko fundak ahulagoak dira eta errazago hautsi daitezke.

3. Nire hortzak marra grisak ditu, zer egin dezaket? Esmaltean dauden marra gris horiek txikitan hartutako botika (tetraziklinak) baten eraginez sortutakoak dira. Zuritasun tratamenduarekin ez da dena desagertzen. Hortaz, karila batzuk ipintzea begiratu beharko litzateke.



Nerea Larrea Oiarbide
Odontologo zirujaua
Beasain

Aholkuak

Estetikaren kontzeptua oso pertsonala da baina kontutan eduki behar dugu hortz zuri-zuriak ez direla naturalak. Edonork daki famatuak daukaten hortz zuri-zuri horiek ez direla normalak. Batzuk hain zuriak dira ze bistara mina egiten dute.

Hortz politak eduki nahi baldin baditugu, lehendabizi ondo zaindu behar ditugu, eta txuriago edukitzeko tratamendu bat nahi badugu egin. Garbi jakin beharko dugu norberaren kasuan zein emaitza lortuko litzatekeen.

Estetikako tratamenduak itxura hobea edukitzeko teknikak dira. Baina benetako estetika lortzen da, egin dituzun tratamenduen ondoren, esaten dizutenean ze hortz politak dituzun eta nabarmena ez izanda. Hori da estetika.



Enirio-Aralar Mankomunitatea ospakizunetan

600 urteko beteko ditu azaroaren 14an




mazda

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN



MENDIZABAL
abeltzaintza

Baserriko haragia salmenta zuzena

686 325 511- Juan Antonio

686 301 313- Maria Luisa

www.baserrikoharagia.com

Mendizabal Baserria
20.248-Arama (Gipuzkoa)



Enirio-Aralar Mankomunitateak urteurren potoloa du aurten: 600. urteurrena. Maiatzaren 1etik azaroaren 14ra, ospakizunetan mugituko. Ospakizun guzti horien helburuak, honakoak dira.

- ✗ Enirio-Aralar Mankomunitatea gizarteari eta herritarrei zabaltzea.
- ✗ Enirio-Aralar Mankomunitatearen historian zeharreko bilakaera zabaltzea.
- ✗ Enirio-Aralar Mankomunitatearen garrantzia historikoa eta egun duen garrantzia ezagutaraztea.
- ✗ Enirio-Aralar Mankomunitateak bere baitan dituen natura, kultura eta historia ondareak hedatzea.
- ✗ Gizarteak Enirio-Aralar Mankomunitateak bere baitan dituen ondare, baliabide eta eskarmentua ezagutzea, ulertzea eta bere kontserbazioa bermatzeko inplikatzeko.

Historia

1400. urtean, Enrike III. ak Enirio-Aralar mendiko Amezketako Joanesi eman zizkion. Data horretan bertan hasi zen egun ezagutzen dugun Enirio-Aralar Mankomunitatea sortzen. Izan ere, Erregeak mendiak Amezketako Joanesi eman izanaren aurka azaldu baitzen Ordiziako udalerria. Auzi edo gatazka horren ondorioz, 1409. urteko azaroaren 14an Amezketako Joanesek Amezketako eta Ordiziako batasunei saldu zizkien Enirio-Aralar mendia 1.400 florinen truke, Enirio-Aralar Mankomunitatea formalki sortuz.

Beraz, 2009. urtean, Enirio-Aralar Mankomunitateak 600 urte beteko ditu. Honek



Aralarko larreak irekitzeko festa

Ohi bezala, maiatzaren 1ean, Aralarko larreak irekitzeko festa egingo da Larraitzen. Neguan mendiari atsedena eman ondoren, ganadua mendiko larre gozoetara igoko da. Jarraian duzue Enirio-Aralar mankomunitateak prestatutako egitaraua:

10:00etatik aurrera: Postuen irekiera eta Arkupe dantza taldea eta trikitilariak. Abere erakusketak: asto, behi, behor, ahari eta abar. Langintza saioak: artilea, saskiak, harria lantzen, ohiko tresnen erakusketa... Bertako produktuen salmenta: ardi eta ahuntz gazta, taloa, sagardoa, orein produktuak, baserriko ogia... eta Aralarko mapa, liburu eta liburuxka.

11:00etan: Larraizko ermitan meza nagusia.

11:30ean: Artzain txakurren erakustaldia, Artxate taldearen eskutik.

12:00etan: Enirio Aralarko Mankomunitatearen VI. mendeurrenari hasiera ofiziala emateko Larraitzen ezarritako harrespila inauguratuko da.

Jarraian: Aralarko larreak irekitzeko etxafuegoa.

Ondoren: Jaialdia: Mikel Mendizabal eta Bixente Gorostidi bertsolariak; Mieltxo Saralegi harrijasotzailea antziko harriarekin; eta musika emanaldia Juan Mari Beltranekin.

17:00etan: Erromeria, Larraizko trikitixarekin.

bai Enirio-Aralar Mankomunitateak berak jasotzen duen eskarmentu eta historiak, bai Enirio-Aralar Mankomunitatearen lurrek duten kudeaketa eta ustiapen tradizionalak, bai eta lur haue-

tan gordetzen diren natura eta kultura baliabideek ere, ospakizun hau gizartera zabaltzea eskatzen dute.

Enirio-Aralar Mankomunitateak Aralar Parke Naturalaren lursailen azalerarik

handiena berak izateak, eta Aralarko natura, kultura eta historia-baliabide garrantzitsuenak bere lursailetan izateak Aralar Parke Naturaleko ondare garrantzitsuenetakoa bilakatzen du.

ARANDIA

GARAJEA

Autoen konponketa

N-1, z/g lurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

Urte guztian zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko meua

Jose Migel Santamaria, Enirio-Aralar Mankomunitateko lehendakaria

Enirio-Aralar Mankomunitatearen historiak dioenez, Ordi-ziako alkatea izaten da Enirio-Aralar Mankomunitatearen lehendakaria. Mankomunitatearen erronkez, helburuez eta kezkez buruz hitz egin digu.

Momentu honetan zein erronka du Mankomunitateak?

Batetik, 600. urteurrena dagokion moduan bete, ahal den kudeaketa txukunena eginez. Bestetik, mendian gaur egun dauzkagun larre eta basoei eutsi, erabilera publikoko gune preziatua denez, arretaz zaindu etorkizunean.

200 urteko arazo bati irtenbidea ere eman nahi zaio bueloaren kontuarekin... zer irabaziko du mankomunitateak?

Basoen etorkizuneko kudeaketa ziurtatzeko gaur egungo loteak desegin eta dena batzea ia ezinbestekoa da. Mankomunitateko herri eta herritarrak denak berdinduko digu ondare horrekiko. Hau da nire ustez, benetako Mankomunitate baten funtsa, arazo hau konpontzeko udalerrri guztiak agertu duten jarrera eskertzekoa izan da.

Aurrera begira zer helburu edo asmo ditu Mankomunitateak?

Gutxi gora behera lehen aipatutakoa: egitamu sendo batean oinarriturik pausoak ematea.

Baso-berritzen ari al zarete? Zein helbururekin?

Pixkana pixkana bai... helburuak? Basoak berreskuratzear gain, gune berezietan babeslekuak sortu abere eta fauna-arentzat, higadura ekidin, paisaia orekatu e.a....

Mendian sasi eta ote gehiago ikusten da. Zergatik ote da? Zein irtenbide izan dezake?

Beti egon omen da arazo hau, eta garai batean sua eman da konpondu itxura ematen zitzaien, azken urte hauetan mekanikoki hainbat larre leku garbitu ditugu.

Duela urte batzuk, pisten gaia pil-pilean egon zen. Gaur egun zertan dago?

Orduan amaitu bezala. Gai korapilatsua da noski, baina ez du esan nahi korapiloa askatzen ahalegindu behar ez dugunik. Kasu honetan nire ustez, nora joan behar dugun eta nola, aurretik jakitea ezinbestekoa da.

Nafarroarekin harremanik edo planik ba al dago?



Egia esan guk nahi adinakorik ez, hala ere horretan ari gara.

Neguan ganadua behera jaisteko irizpideak, zein onura ekarri dio Aralarri?

Dirudienez, oso esperientzia ona izan da. Larreei arnasa emateaz gain, zeharka, baso inguruetan landaredi berria sortzeko ere baliogarria suertatu da. Nafarroan egiten ez dutenez, hango mugan arazo txiki bat badugu baina laster konpondu nahi genuke.

Erraza al da Aralarren erabiltzaile guztien arteko elkarbizitza garatzea?

Zer egina badago ere, pixkanaka bide onean doa. Erabiltzaile guztiek, leku hauekiko geroz eta sentsibiltate gehiago daukatela uste dut, eta hori lagungarri da.




aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

Aulia-enea
LEGORRETA



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zko: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



A SE PLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

VI. mendeurrenako ekintzen aurrerapena

Ekitaldien datak zehaztu gabe baldin badaude ere, hona hemen, Enirio-Aralar Mankomunitateak, VI. mendeurrena ospatzeko antolatuko dituen ekintzen aurrerapena:

Maiatzaren 1eko larre irekiera ospakizuna

Hamaikagarren urtez, maiatzaren 1ean, Larraitzen, larre irekiera ospakizuna antolatu dute Enirio-Aralar Mankomunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Aurten Enirio-Aralarko Mankomunitatearen VI. mendeurrenari hasiera ofizial emateko Larraitzen ezarritako harrespila inauguratuko da, eguerdiko 12etan.

Enirio-Aralarko mankomunitatearen historiari buruzko argitalpena

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, Enirio-Aralar Mankomunitatearen historia eta bere bilakaera azalduko duen liburua argitaratuko da. Alfredo Moraza arkeologoa eta historialaria ari da lana prestatzen.

DVD multimedia ikusentzunezkoa edo dokumentala

DVDa ere argitaratuko da, liburuarekin batera.



Unitate didaktikoa

Eskoletara eta umeetara ere iritsi nahi dute Enirio-Aralar Mankomunitatekoek. Era honetan, Unitate didaktikoa prestatuko dute, beti ere, Enirio-Aralar Mankomunitatea ezagutzeko helburuz.

Aralarko azoka Igaratzan

Aralarko bihotzean, Igaratzan, azoka berezia antolatzeko asmoa du Enirio-Aralar Mankomunitateak.

Enirio-Aralar ibilaldi neurtua

Enirio-Aralar Mankomunitatearen lurrak bertatik berta-

ra ezagutzeko aukera balio du ekintza honek.

Herriz herriko ekimena


Enirio-Aralar Mankomunitatea osatzen duten 15 herrietan erakusketa ibiltaria ikusgai izango da.

San Martin eta Larraizko atsedenekuetako eskulturak

Guillermo del Olmo eskulturgilearen eskutik, bi leku esanguratsu hauetan, eskultura bana jarriko da. Larraitzen, maiatzaren 1ean eta bigarrena, San Martinen, azaro aldera.

600. urteurrenaren urtebetetze eguna

2009ko azaroaren 14an berteko ditu Enirio-Aralar Mankomunitateak 600 urte. Urtebetetze egunean bertan, ospazkiun handia egiteko asmoa dauka Enirio-Aralar Mankomunitateak. Abaltzisketako Suegi mendian izango da ospakizun instituzionala, Enirio-Aralar Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako ordezkariak bertan biltzen baitziren erabakiak hartzeko. Ondoren, herritarrei begirako festa, Larraitzen egingo da.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA





Mankomunitatea zenbakietan

Hasteko, datu teknikoak: zenbat artzain, zenbat txabola, zenbat ardi, zenbat behi, zenbat behor.... dau-de?

40 txabola beste horrenbeste artzainekin; 18.000 ardi, 600 behor eta 700 behi gutxi gorabehera.

Kopurua goraka doa, beheraka...

Azken urte hauetan mantentzen ari da batez besteko.

Txabola guztiak konponduta al daude?

%90 dago konponduta. Hau dena Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz egin da. Bizpahiru urteetan falta direnak konponduta izatea espero dugu.

Uraren azpiegiturari dagokionez, beharrak beteta al daude?

Benetako beharrak beteta daude, baina hobetze aldera, beste aska eta iturri batzuk jartzeko asmoa dago oraindik. Zehaztutako larre leketan ugarituko dira askak. Iturriak aldiz, mendigoizaleen ibilgune nagusietan izango dira.

Arboladiaren gaineko loteen eskubideak

1821eko azaroaren 22an, Enirio eta Aralar mendietako larre-sariak zaitu eta banatzeko eskritura sinatu zen. Horretarako, eragindako hamabost herrietako hainbat ordezkari eta ahaldun berezi bildu ziren. Eskritura horren bitartez, zuhaiztia banatu egin zen eta hainbat zonalde, lote edo zati bereizi ziren, baso ustiapena Enirio-Aralarko Mankomunitatea osatzen duten hamabost herriek osatutako bi elkar-teen artean banatzeko.

Eremua lursailetan banatuta egoteak asko zailtzen du baso horien kudeaketa bateratua. Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako Zerbitzuak 1994. urtean balorazio ikereketa bat agindu zuen, pagadiaren balio osoa eta hamabost herri horietako bakoitzari dagokion zuhaiztiaren gaineko eskubideen portzentajea kalkulatzeko. Portzentaje horiek Mankomunitatearen Batzarrak eta udal bakoitzeko plenoek onartu dituzte.



Harpidetza txartela

Urteko kuotak: Egin ☒ aukeratutako kaxan

☐ **Goierritarra** 27 euro

☐ **GOIERRIKO hitza** 67 euro

☐ **Goierritarra** + **GOIERRIKO hitza** 72 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefono zenbakiak:..... NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartela
helbide honetara:
Goierritarra
Urbalde plaza 7 behea
Beasain

Harpidedunen
arreta zenbakia:
902 82 02 01

NZ

nazaret zentroa

Aldakonea, 36 · 8º Egia
20012 DONOSTIA
Tel. 943 326666
Fax. 943 326384
nazaret@nazaretzentroa.com
www.nazaretzentroa.com

JARDUNALDI IREKIAK

Martxoak 25 Asteazkena (16:00 a 20:00)
Maiatzak 6 Asteazkena (16:00 a 20:00)

INFORMAZIO SAIOAK

Martxoak 27 Ostirala (18:00)
Martxoak 28 Larunbata (11:00)
Maiatzak 8 Ostirala (18:00)
Maiatzak 9 Larunbata (11:00)

Batxilergoa

- Zientziak eta Teknologia
- Natura eta Osasun Zientziak

Lanbide Zikloak

Goi Mailako Zikloak

- Administrazioa eta Finantzak
- Informatika Sistemen Administrazioa
- Nazioarteko Merkataritza
- Idazkaritza

Ziklo Ertainak

- Administrazio-Kudeaketa





kutxa | Lankidetzako Gizarte Ekintza

ur dan eta
o i anguren

OIANGUREN BHI
ORDIZIA

Altamira auzoa z/g
Tlfnoa.: 943 880 862
www.oianguren.net



OIANGUREN INSTITUTUA

BATXILERGOA

- Giza eta Gizarte zientziak
- Natur eta Osasun zientziak



- Aukera zabala (bi modalitate, 26 ikasgai aukeratzeko: Ekonomia, Ordenagailu bidezko diseinua, Informatika, Teknologia, Psikologia, Grekera, Laborategi teknikak...)
- Orientazio pertsonala eta akademikoa.
- Goi mailako ikasketetarako bide egokia.
- Ikasleen interesa eta prestakuntza premiei erantzun egokia.

IZEN EMATEA: maiatzaren 4tik 8ra



Mariela Perez Sarria kubatarra:

“Ni hemengoa naiz”

Mariela Perez Sarria. Kuba erdialdekoa da, Cienfuegosekoa. 2004ko abuztuan etorri zen Olaberrira, maitasunagatik.

Euskal Herrira ekarri zuen maitasun historiak bide txarra hartu bazuen ere, gaur egun bere bizitza be-

regin du, beste euskaldun batekin. Legorretan bizi dira.

Oso gustura bizi da Goierrin. Euskara ere ikasi du. Euskara izan da gure harremanerako hizkuntza. “aizpiden euskara ikasten ibili zen sei hilabetea. Tabernaria da Lazkaon eta euskaraz bizi da Mariela.

Ez du uste Kubara itzu-

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA



zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA



- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitarkeoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04

liko denik, oporretan ez bada. Bertakoa sentitzen da. “Ni hemengoa naiz. Hemen, Kuban bezala nago. Jendearekin oso pozik nago. Datorren hilean joango naiz oporretan, Lazkaoko festak bukatutakoan”, dio Marielak.

Printze txikia

Dena den, Kuban du bere printze txikia. 12 urteko semearen ama da. Lepoan zintzilik darama bere argazkia. “Kuban bizi da nire amarekin. ‘Principito’ bezala dago”, nabarmendu du Marielak.

Semea Goierriara ekartzeko asmoa badu, baina beranduxeago. “Hango hezkuntza oso ona da eta oso ikasle ona da. Aldaketarik ez dut nahi momentuz berarentzat. Gainera hemen, euskara ikasi arte ere, arazoak izan ditzake”, azaldu du kubatar euskaldunak.

Ikastea dohainik da Kuban. “Osasuna ere bai. Beste kontu bat da, farma-

ziara joan eta sendagairik ez egotea”, gaineratu du Marielak. Euskaldun asko joaten da Kubara. “Jendeak gauza txarrak ikusten ditu, baina onak ere bai”, azpimarratu du.

Kubatarrek Euskal Herriaz eta Europaz zein irudi daukaten ere galdetu diogu Marielari. “Hau paradisua dela pentsatzen dute, baina ez da horrela. Nire familiak ere hala uste du baina nik azaltzen diet hau zer den. Nik lanik gabe ezingo nuke ezer ere egin hemen. Lan asko egin behar da hemen. Nik azaltzen diet hau ez dela paradisua”, dio goierritar berriak.

Herrimina izaten du Marielak baina batez ere janariaren falta nabari izaten du gehien. “Hemengo jantzia ona da, baina ezberdina”.

Eta jakina, eguzkia eta kubatarren giroa, erritmoa. “Euskaldunak hasieran, itxiak zinetela iruditu zitzaidan. Orain hemengoa naiz eh?”.

Hau paradisua dela
pentsatzen dute Kuban,
baina hemen bizi ahal izateko
lan asko egin behar da.



“Laguntza behar du Kubak”

Kuba zer moduz dago?

Bueno, gaizki samar dago. Laguntza behar dugu. Zikloien ondorioz, uztia eta animalia asko galdu dira. Adibidez, arrautza batek 4 peso balio du, hemengo 5 zentimo. Kuban 4 peso asko dira. Orain Obamarekin esperantza pixka bat daukagu.

Neurri batzuk hartu ditu Obamak, zenbait muga kendu ditu.

Orain arte Estatu Batuetan bizi ziren kubatarrek, urtean behin joan zitezkeen eta diru kopuru zehatz bat gastatu. Orain, muga horiek kendu egin ditu Obamak. Pixkanaka-pixkanaka ikusiko dugu ea hobetzen den. Urte asko daramatzagu blokeoarekin.

Raul Castro dago orain agintzen. Fidel Castro, Raul Castro?

Raul anaia, Fidel baino gogorragoa da. Gobernu osoa aldatu du, jende berriarekin dago eta ez dakigu zein pentsamentu izango duen. Jendea ez dago oso seguru. Fidelek karisma handia dauka.

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.



AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486



zuhaizki
Zurgindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurritan.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrocientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



Txindoki-Alkartasuna
Institutua

B a t x i l e r g o g u z t i e n k



ARTE BATXILERGOA

**BATXIL
ELEANIZ**

**IKAS
BATZ
INGEL**

HUMANITATE ETA GIZA-ZIENTZIEN BATXILERGOA



ATE IRE

Apirilare

18:30

m a t r i k u l a e p e a : m

U g a r t e m e n d i , 6 . 2 0 2 0 0 B e a s a i n



Telf. 943-880753



k a l i t a t e z k o e s k a i n t z a


LERGO
IZTUNA

SGAI
ZUK
LESEZ



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA BATXILERGOA

REKIAK
en 29an
0etan



m a i a t z a r e n 4 t i k 8 r a

n w w w . t x i n d o k i a l k a r t a s u n a . n e t



Antzar korrikalariak

Zaletasunak elkartuta, Antzar korrikalari taldea sortu zen duela 7 urte. Urtetik urtera, taldea hazten ari da bai korrikalari kopuruari dagokionean, bai proiektuei dagokienean. Inguruko neurri eta maila ezberdinetako lasterketan parte hartzeaz gain, azken urteotan,

Europako maratoi ezberdinetan parte hartzen ari dira. Paris, Sevilla, Londres, Rotterdam... Aurten, talde bat Pragara joango da maiatzaren 10ean eta beste talde bat, irailaren 20an, Berlinera. Ordizian, antzeko ezaugarriak dituen taldea sortu berria da: 'Bolitas anaiak'.

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 861 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnada 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

10





Ezkerreko argazkia 2005. urteko Parisko maratokia da. Eskuinekoa, berriz, iaz Roterdamen ateratakoa.

2002. urtean sortu zen Antzar korrikalari taldea. Abenduan, haurrentzat krosa antolatzen hasi ziren, besteak beste, korrikarako zaletasuna bultzatzeko helburuz. Eginkizun horretaz gain, talde bezala Lazkao-ren izena zabaltzen ari dira bertako eta Europako lasterketetan.

Mikel Zabala Antzar korrikalarietako bat da. Berak kontatu digu, taldearen sorreraren berri. "Karreretara joaten ginen eta konturatzen ginen, herriko gero eta korrikalari gehiago joaten zela. Beste herri batzuetan taldeak baldin badaude, zergatik ez dugu korrikalari talde bat Lazkaon sortzen? Pentsatu eta egin. 15-20 lagunekin sortu zen taldea. Gaur egun, 50 gaude. Hasi ginenean, neska bakarra zegoen, eta momentu hone-

tan, 13-15 izango dira. Jende gutxi hasi ginen baina gero eta gehiagora goaz. Indarra hartzen ari da taldea".

Korrika gustuko duten jendea elkartu da Antzar Korrikalari taldean. Maila, adin eta helburu ezberdinetako korrikalariak. "Maila ezberdinetako korrikalariak daude; lasterketa irabazten dituenetik hasita Ordiziako San Silbestrea egiten dutenen arte. Batzuk denbora gehiago daukate entrenatzeko, beste batzuek gutxiago... taldearen funtsa da, afizio berdina daukagunak elkartu eta korrika egitea. Bakoitzak bere erritmoan".

Bakoitzak helburutzat hartzen dituen lasterketak ere ezberdinak dira. Maratoia, maratoi erdiak, motzagoak, luzeagoak... "Jende gehienak, Behobia-Donostian parte hartzen du. Jende

gehiena orduan ibiltzen da korrika. Ordiziako San Silbestrean ere jende askok parte hartzen du. Bakoitzak ahal duena egiten du", dio Zabalak.

Lasterketetara elkarrekin joateaz gain, entrenatzeko ere hitzordua jartzen dute askotan. "Maratoia entrenatzeko adibidez, bi orduko entrenamendua baldin badaukat, eta bakarrik egon edo beste 4-5 pertsonekin joan, ez dauka inolako zeri-kusirik, askoz ere motzagoa egiten da. Erritmoak berdintsuagoak dira, jendea eza gutzen duzu... zaila da erritmo berean dabilen jendea topatzea".

Maratoiak

Maratoiak aipatu ditu Mikel Zabalak. Hainbat taldekidek, Donostiako maratoia-ekin batera, Europako ma-

ratoi garrantzitsuenetan parte hartzen baitute. "Hemen-go karreretan hasi ginen, baina duela 5 urte, maratoiekin hasi ginen. Ideia bota genuenean, uste genuen jende gutxi joango zela. Baina lehenengo urtean, 10 lagun joan ginen, Parisa. Beraz, jendeak hori ikusita, maratoietara joaten ginen taldea pentsatzen zuen baina hori ez da horrela. Karrera motzak, luzeak, Behobia, San Silvestre... Tadean sartzeko ez dago baldintzarik: baldintza bakarra, korrika gustatzea da".

Paris, Sevilla, Rotterdam eta Londreseko maratoiak eginak dituzte. Aurtan ere bi helburu dituzte: talde batek, maiatzaren 10ean, Pragako maratoia egingo du eta beste talde batek, irailaren 20an, Berlingoa. "Orain arte saiatu izan gara udabe-

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak
Filtroak, olioak,
engrasea
Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak
Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreraren ☎ 943 18 72 57



Maratoia aitzakia bartuta senide eta lagunekin turismoa egiten dute korrikariek. Eskuineko argazkia, 'etxean' Ordiziako



riko maratoin bat egitea. Iaz, batzuk Londresko maratoia egiteko asmoa zeukaten. Hori, ondo ordainduta egiten da, Madrilgo agentzia baten bidez. Oso garestia ateratzen da. Beti saiatu izan gara, ahalik eta jende gehiena joatea korrika, prezioa ez dadila muga izan. Iaz, beraz, banatu egin ginen: talde bat Rotterdamera joan zen eta beste talde bat Londres. Aurten berriro ere, hala egingo dugu, baina ez diru kontuengatik, batzuk, Berlinera joan nahi zutelako baizik. Irailaren 20an da. Baina horrek suposatzen du, abuztuan gogor entrenatzea. Oporretan, fuere entrenatzen aritzea batzuk ez genuen egoki ikusten, eta nahiago dugu apirila-maiatzeko maratoin bat egitea. Praga aukeratu dugu aurten. Maiatzaren 10ean. Berlinera, 32 lagun joango dira, korrika egitera, 10. Pragara, 10-12 joango gara eta korrika egitera, 7-8. Udaberriko maratokiak dira

onenak, baina ez zaizkigu gehiegi gelditzen. Famatuena egin ditugu: Rotterdam, Paris, Sevilla, Erroma, Londres, orain Praga eta Berlin... Hamburgo eta Viena falta dira baina horiek Lazkaoko festekin batera dira eta momentuz behintzat, inor ez da animatzen. Irailean daudenak falta dira, baina horretarako abuztuan entrenatzea suposatzen du", azpimarratu du Zabalak.

Uda pasatu ondoren, taldekideak elkartu eta bileran erabakitzen dute datorren urtean zein maratoietan parte hartuko dugun. "Jendeak nora joan nahi duen ikusten dugu eta bozkatu egiten da. Behin erabakita,

astero kuotatxo bat jartzen joaten gara. Diru horrekin normalean, hotelak eta bidaia ordaintzen ditugu".

Denen buruan dabilen lasterketa dena den, New Yorkekoa da. "Beti esaten dugu, ahal izango balitz, New Yorkekoa egingo genuela. Baina ondo ordaindu behar da hara joateko. Londreskoa, hiru egun, mila euro kostatzen baldin bada, New Yorkekoa, astebate, 2.200 euro. Helburu gorena, talde bezala, New Yorkera joatea da. Baina jende asko hara mugitzea, oso zaila da, batez ere, kostuagatik."

Orain arte egindakoe-tan, Pariskoa oso gogoan dute Antzar korrikariek.

"Pariskoa izan zen politena. Baina akaso izango da, lehen dabizikoa izan zelako. Londreskoa, antolakuntza aldetik izugarria omen da. Baina bereziena beti, Pariskoa izan da". Korrikaren aitzakian, turismoa ere egiten dute beraz. "Ahal den ondoen egitera joaten gara, gozatzeri. Joan den guztietan beti bukatu ditugu maratoiak. Guretzat pozgarria da, denak bukatzea, bakoitzak bere erritmoan".

Babeslea

Antzar korrikalari taldeak, hasiera-hasieratik, herriko enpresa baten babesia izan du: Errotaundi okindegiarena. "Zorte handia izan dugu, babeslearekin. Arropa ematen digu. Gero eta gehiago gara baina babes-ten jarraitzen du eta gu oso pozik gaude".

Herri mailan giroa sortu du Antzar korrikalari taldeak eta Lazkaoren izena han eta hemen zabaltzen ari dira: "edozein lekutan atera

Berlingo maratoia 10 lagunek egingo dute irailaren 20an eta Pragakoa, 8 lagunek, maiatzaren 10ean.

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



ako San Silbestrean aterakoa da.

eta aupa Lazkao entzutea polita da. Aurreko batean, Leona joan ginen. Maratoi erdia zegoen. Eta halako batean, neska batek, aupa Lazkao esan zuen. Beasaingo neska bat zen. Kamisetagatik ezagutu gintuen”, azpimarratu du Mikel Zaballak.

Mendiko maratoieta aritzeko asmorik ba ote duen inork galdetu diogu Zaballari. “Clemente Bravo daukagu bakarra. Momentuz behintzat, beste inork ez du gogorik azaltzen. Mendiko maratoia korritzen duen jendeak esaten du, bidekoa gogorragoa dela. Nik ez dut probatu eta ez dakit, baina ez dit inongo inbidia-rik ematen”.



Ordizian ere taldea sortu da: ‘Bolitas Anaiak’

Ordizian lehen ere izan zen antzeko talde bat, Jatorrak izenekoa, baina aspaldian talde bezala utzi samar zeukaten, jende nahiko beteranoak osatzen baitzuen. Beraz, Jatorrak- en ibilitako batzuk, eta belaunaldi gazteetako batzuk, beste talde bat sortzea erabaki du- te, izen xeblebreko taldea gainera: ‘Bolitas Anaiak: Compañeros de fatigas’. Martxoaren 17an sortu zen taldea, Ordiziako Txapel-Gorri elkartearen egindako afari batekin. Manuel Etxarri izan da taldearen bultzatzaile nagusietakoa, eta taldearen izena Etxebarrieta anaien kontua da. Elastikoa ere atera dute.

22 atletak osatzen dute taldea, eta denek lasterketa herrikoietan hartzen dute parte, bai errepidekoetan zein mendikoetan. Maratoian, mendiko maratoieta, goi mendiko ze- harkaldietan... Dagoeneko, ‘Bolitas Anaiak’ talde bezala honako lasterketetan hartu dute parte: Donostiako Udaberri saria, Azpeitia-Azkoitia, Sarako mendi lasterketa, Adarra men- dira igoera... Taldeko kideetako batzuk Aizkorriko maratoria prestatzen ari dira.

Honakoek osatzen dute taldea: Juanito Rubio Beloki (lehendakaria), Mitxel Cuadrado de la Fuente (idazkaria), Joxi eta Peio Etxebarrieta Aranburu (Ohorezko kideak), Manuel Etxarri Sarasola (zuzendari teknikoa), Aitor Etxebarria Garin, Alberto Aranburu Urbiet, Fernando Monasterio Urbano, Jon Aranburu Ruiz, Asier Iza Urretabizkaia, Prontxio San- toyo Mendizabal, Gregorio Morales Casado, Imanol Oiarbide Goikoetxea, Joseba Marin Galparsoro, Gorka Argaziz Etxebarria, Aritz Mendizabal Iturrioz, Juanma Sarasola Amun- darain, Gorka Eraso Etxebarria, Roberto Garcia Seco, Aitzol Arruabarrena Otegi, Oskar Karlos Martos eta Angel Perez Gilete.

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,
Erreformat...

943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

Hileko lehenengo ostiralean, arratsaldeko 7etatik 8etara taldetxo bat elkartzen da Lazkaon

Kanta-kantari



Kantatuz ondo pasatzea du helburu, Lazkaon sortu berria den Kanta Kantari taldeak. Hileko lehenengo ostiralean, Kultur Etxean elkartzen dira kantatzea gustuko dutenak, arratsaldeko

7etatik 8etara. Taldea irekia da, kantatzea gustatzea da baldintza bakarra. Hasi besterik ez da egin taldea, noraino iritsiko den denborak esango du. Goierriko Euskal Eskolatik sortu da ekimena.

 **GERTU** Creativity and Innovation
European Year 2009
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK
San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN T: 943 16 21 92 F: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain


Lurrindegia eta opari gaiak

ZAHARRA • BERRI IGELTSEKITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
943 180 372
651 700 439
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak



MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Goierriko Euskal Eskolaren (GEE) ekimenez, kanta-kantari hasi da taldetxo bat Lazkaon. Kantatzea gustuko dutelako, euskal kantuak kantatuz, hilean behin, lehenengo ostiralean, ordubetexo batean, elkartzen dira. Martxoko lehenengo hitzorduan, 16 bat lagun elkartu ziren. Hurrengo hitzordua, maiatzaren 8an izango dute, 7etatik 8etara, Kultur Etxean. Taldean parte hartzeko ez dago inongo baldintzarik. Ondo kantatzea ere ez da beharrezkoa.

Kantuan harrapatu ditugu. Taldekideak gustura daude eta itxura guztien arabera, prest leudeke, kantu saioa, Kultur Etxetik kalera ateratzeko. Denborak esango du.

GEEko Inaxio Usarralde eta Joxepa Madariaga izan dira Lazkaon kantuan ari zeko sua piztu dutenak.

Nondik sortu zaizue Kanta-kantari hasteko ideia?

Joxepa Madariaga: Donostian Kantu Jira egiten zutenak Lazkaora etortzeko aukera sortu zen iaz. Herri herri mugitzen dira eta Lazkaora etortzeko gonbidapena egin genien. Azaroan jarri genuen hitzordua. Herriko bost bat leku aukeratzeko, eta gero bazkaria, eguerdian, herrian, kantuan aritu ziren. Hamaiketako eman genien plazan, herrian buelta bat eta Maizpiden egiten genuen bazkaria.



Adin eta herri ezberdinetako herritarak biltzen dira kantuan.

Donostiatik ia 70 lagun etorri ziren eta herritik ere jende asko gerturatu zen. Donostian, hilabeteko hirugarren larunbatean ateratzen dira kantuan. Egunkaria itxi zutenean indartu zen batez ere.

Inaxio Usarralde: Jendea-ri deigarria egin zitzaion. Jende asko arrimatu zen, askotan herri honetan asko kostatzen da.

Madariaga: Bazkarira jende asko etorri zen eta kantura ere bai. Jende erdaldu-na ere bai, liburuxkak eskatuz, bilobekin edo seme-

alabekin kantatzeko. Jende desberdina inguratu zen. Eguna primeran joan zen eta balorazioa egin ondoren, Lazkaon ere zerbait egitea ez litzatekeela gaizki egongo ikusi genuen. Usarralde eta biok mugitzen hasi ginen eta tanteo bat egin genuen.

Usarralde: Garbi geneukana zen, horrelako ekintza bat aurrera ateratzekotan, herriko jendearekin atera beharko zela, eta ez Maizpidetako ikasleekin.

Madariaga: Bilera batera deitu genuen herritar talde

bat ea interesik bazegoen ikusteko.

Usarralde: Oinarri bat bazegoen ala ez ikusi nahi izan genuen. Gogoia ikusi zen 15 laguneko taldea prest azaldu zen.

Madariaga: Plan lasaia aurreikusten genuen. Hilean behin ...

Usarralde: Geuk gozatze-ko izan behar litzatekeela. Hilean behin, ordu bete inguru, geuretzako kantatu, osasungarria delako besteak beste. Materiala nahi adina dago. Gero taldeak esango du zertarako den.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

IÑAKI ARIN
aseguruak



943 888 702

Oriako pasealekua, 20

BEASAIN



Iñigo Garziandia

Ondo dago. Entzunda neukan Donostian eta Hernanin egiten zutela. Donostia-ko taldea etorri zen, larunbat batean eta oso polita izan zen. Niri beti gustatu izan zait kantatzea eta lehengoan esan zidatenean aukera hau zegoela gustura etorri naiz. Ea jendea animatzen den eta ea gu ere animatzen garen kanpora ateratzera, eta ea horrela jende gehiago animatzen den.



Tere Garmendia eta Miren Iartza

Miren Iartza: Gauza polita da. Talde koskor bat sortuz gero, taldea kanpora ateratzea izango litzateke egokiena, talde bera handitzen joateko eta bestela ere inguratzen ez den jendea erakartzeko. Kanpoan kantuan arituta herri giroa sortzeko modua da.

Tere Garmendia: Kantua gauza polita da eta nik usate dut jende askori edo gehieneri behintzat gustatzen zaiela. Denok abesten dugu hobetoxeago ala okerrago. Dinamika polita izan liteke, jendea elkartu, adin ezberdinetakoak... Momentuz pentsatzen dugu hilean behin elkartzea, baina gero aurrerago, auskalo.



Antonio Irastortza

Denborak esango du ea zer ateratzen den talde honetatik, baina hasi eta ikasiko da. Tentuz ibili behar da, hasieran iruditzen zaizu arrakasta izan dezakeela, baina jarraipena da zailena. Lazkaomendiko jaietan kantatzea ondo egongo litzateke. Kalera ateratzeko musika tresnaren bat egokia izango litzateke, girotu egiten du eta.

Aurreneko deialdira, 16 lagun elkartu ginen. Espero ez genuen jendea tartean. Gazteak ere bai tartean. Txoratzen. Oso gustura gelditu ginen lehenengo saioarekin. Inportantea, eta azpimarratzekoa dena da, zeinen talde anitza elkartu garen.

Zein helburu du taldeak?

Usarralde: Guk sua piztu dugu, orain taldeak esan behar du zein pauso eman go diren.

Madariaga: Jendeak ondo pasatzeko aukera bat izatea. Hortik hazten joaten dela, potologoa bihurtzen dela... ederki. Desagertzen dela? Ez da ezer gertatzen.

Usarralde: Helburua, guk

ondo pasatzea da eta hortik etorriko da etorri behar duena.

Nola antolatzen duzue kantu saioa?

Madariaga: Maizpidek argitaratuta duen kantu liburuxka hartu dugu oinarri. Baina ez gara horra mugatuta. Bakoitzak berea ekartzeko zabaldua gaude.

Usarralde: Txandaka, bakoitzak kantu bat aukeratu eta kantuan aritu ginen. Ez garai batekoak bakarrik, gaur egungoak ere sartu daitezke...

Madariaga: Musikan gehixeago dakitenak badaude pare bat. Gaizki hasten baldin bagara parre egiteko ere bada.

Harpidetza txartela

Urteko kuotak: Egin ☒ aukeratutako kaxan

☐ **Goierritarra** 27 euro

☐ **GOIERRIKO hitza** 67 euro

☐ **Goierritarra** + **GOIERRIKO hitza** 72 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefono zenbakiak:..... NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartela
helbide honetara:
Goierritarra
Urbialde plaza 7 behea
Beasain

Harpidedunen
arreta zenbakia:
902 82 02 01

www.jakintza.net



Batxilergoa jakintzaikastolan

Zientifiko Teknikoa eta
Osasun Zientziak
Giza eta Gizarte Zientziak

Euskal heziketa bermatuz
IKT arloan aintzindariak

Altamira auzoa Z/G

Telef. 943 16 05 40

ordizia@ikastola.net



jakintzaikastola



Euskadi
2 0 0 5

MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

**IKUSMENAREN PREBENTZIORAKO
KANPAINA 2009**

3-12 urte bitarteko haurrentzako promozioa



www.multiopticasgipuzkoa.com

J.M. Barandiaran Enp. • Tel. 943 88 99 88 • **ORDIZIA**

Legorreta

Dantzari Txiki eguna

Apirilaren 26an Dantzari Txiki eguna ospatuko da Legorretan. **Goizeko 11etan**, bilkura Korta eta Zapas enparantzan. **Eguerdiko 12etan**, Beasaingo Aurtzaka, Ordiziako Jakintza, Zaldibiako Iztueta eta Legorretako Irrintzi Alai taldeek herriko auzoetan dantza egingo dute. **13:00etan**, dantzari guztiak enparantzan bilduko dira eta bertan dantza desberdinak egingo dituzte. **Arratsaldeko 4,30etan**, Potxin eta Patxin pailazoen Mekatxis Mariatxi! emanaldia izango da Herri Zinemaren.

Goierrri

Literatura lehiaketak antolatu ditu Ampok

18 urtetik gorako goierritarrentzat, prosa eta poesia edo bertso-paper lehiaketak antolatu ditu Ampok. Lanak, maiatzaren 18a baino lehen bidali behar dira, Idiazabalgo Ampo kooperatibako Euskara Batzordera.

Gaiak

Prosan gaia 'Erabakitzeke garaia' izango da: Lanaren luzera: gehienez, 4 orrialde. Poesian eta bertso-paperetan gaia librea izango da. Bertsoetan, gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso aurkeztu behar dira. Olerkian, bat baino gehiagok osa dezakete eta 64 eta 96 lerro arteko luzera izango dute.

Sariak

Sail bakoitzean, hiruna sari banatuko dira. Irabazlearentzat, 500 euro, bigarrenarentzat 300 euro eta Ampoko onenarentzat 200 euro.

Sari banaketa ekainaren 5ean Idiazabalen ospatuko den Euskararen Festan egingo da. Irabazleek lanak, Ampoko Euskara Batzordeak argitaratzen duen Bultzada aldizkarian argitaratuko dira.

Gabiñia

Udaberri kulturala

Apirilak 23, osteguna:

17:00etan: 'Aurorita beti polita' ipuin kontaketa kultur etxean, Lur Kortaren eskutik.

Apirilak 24, ostirala:

22:00etan: 'Ate joka' antzezlan elizako aretoan, Txalo taldearen eskutik.

Apirilak 25, larunbata:

20:30ean: Afaria Osinalde elkartearen.

Afalondoren, XXXVIII. Bertsolari gazteentzako Osinalde Sariketa.

Apirilak 26, igandea:

12:00etan: Meza nagusia. Beronen barnean eta ondoren, Anabel Aldalur mezzosoprano gabiriarraren kontzertua.

18:00etan: Txindata musika eskolako ikasleen kontzertua.

Jarraian, argazki lehiaketako sari banaketa.

Lazkao


Xanbe eta Kantakaren kontzertuak

Apirilak 27, astelehena:

19:30ean: Parrokian, belaunaldi ezberdinen arteko abesbatzak: Lazkaoko eta Ordiziako jubilatuen abesbatzak eta Xanbe gazte abesbatza, Arantxa Gastesik pianoan lagunduta.

Apirilak 28, asteartea:

19:30ean: Aleria Kulturgunean: Xanbe gazteen abesbatza eta Kantaka abesbatza mistoa.



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLERETAN

PLOTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK

☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN




ZEGAMA
OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



Iñauti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZEHU. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

Goienizen Begirada

Apirilaren 16tik maiatzaren 14ra bitartean, Goieniz zine klubak Begirada zikloa eskainiko du, ohi bezala, Beasaingo Usurbe antzokian, gaueko 9etan. Aurtengo gaia musika da. Jarraian duzue egitaraua:

Apirilak 23, osteguna:

21:00etan: 'The Soul of a Man'. Zuzendaria: win Wenders.

Maiatzak 7, osteguna:

21:00etan: 'Joe Strummer: Vida y muerte de un cantante'. Zuzendaria: Julien Temple.

Maiatzak 14, osteguna:

21:00etan: 'Joy Division'. Zuzendaria: Grant Gee.



Turismo ikastaroa

Goiturrek turismoaren inguruko ikastaroa antolatu du, Goierriko zerbitzu turistikorako enpresen beharrei erantzun ahal izateko. Apirilaren 27ra bitartean eman behar da izena: 943 161823 edo goierri@goierriturismo.com)

Maiatzak 8, ostirala:

16:00etatik 19:00etara: Goiturreko bulegoetan Ordizian. Ikastaroaren helburuak, Euskadiko eta Goierriko turismoaren egituraketa eta Goierriko informazioa; Goierriko museoak eta hauen funtzionamendua; turismo oinarriko eskuliburua; kontzeptuak eta hiztegia.

Maiatzak 9, larunbata:

10:00etatik 13:00etara: Segurako Ertaroko Interpretazio Zentroa. Segurako herria ardatz hartuta, bisita gidatu baten egituraketa. Idiazabalgo Gaztaren Interpretazio Zentroa.

Maiatzak 22, ostirala:

16:00etatik 19:00etara: Zeraingo museo etnografikoa eta burdinaren mendia. Zegamako egurraren museoa.

Maiatzak 23, larunbata:

10:00etatik 13:00etara: Ordiziako Delikatuz Zentroa. Beasaingo Igartza Multzoa. Ormaiztegiko Zumalakarre-gi museoa.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

ERAKUSKETA IRAUNKORRA: 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimendu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

PLANETARIUM BERRIA

Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak: Asteburu eta jai egunetako saioak: 12:00 eusk., 13:00 gazt., 15:30 fran., 16:15 gazt., 17:00 eusk., 18:00 gazt.

Donostiatik zerura begira: Zuzeneko saioa.

Itsua izar begiekin: Ipuin animatu bat, non itsu bat eta tirano bat protagonista dituen.

Biziaren jatorria: Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.

Kartoizko Suziriaren sekretua: Haurrei zuzenduta. BERRIA!

IKUSKIZUN ETA ANIMAZIOAK

Elektrizitate ikuskizuna: Illek puntan jarriko dizkizun esperientzia.

Planetarium Txikia: 4-9 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten

Simulagailuak: Errusiar mendia eta tranbia gidatzailearekin disfrutatzeko aukera

Eta gainera: Segway-a, Fakirren ohea, 1,2,3...matemagia!., sumendiak, esperimenduak, etab.





izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045

Ondramuño
baserria
IDIAZABAL



GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

UDAKO MATRIKULA ZABALIK!

ESKOLA LAGUNTZA - TAILERRAK
UNIBERTSITATE MAILA
INFORMATIKA - MEKANOGRAFIA
IKASKETA TEKNIKAK
INGELERA

Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120 (arratsaldez)
www.ikaskide.net

Idiazabal

Gazta eguna

Maiatzaren 3an, XII. Gazta eguna ospatuko da Idiazabal-en. Jarraian duzue prestatu duten egitaraua:

Maiatzak 1, ostirala:

18:00etan: IX. Mami lehiaketa, Jubilatuen Elkartean.

19:00etan: Hitzaldia.

Maiatzak 3, igandea: XII. Gazta eguna:

10:00etan: Artzainek postuak irekiko dituzte.

11:00etan: Herriko artzainak gazta egiten hasiko dira era zahar eta modernoan.

11:30ean: Gazta ketze eta ardi mozte ikuskizuna, eskuz eta makinaz.

13:00etan: Omenaldia artzain izandako Luziano Aranburu jaunari.

13:30ean: Sari banaketak: postu dotoreenari eta gazta onenari.

Arratsaldean: Urrezko aizkoraren kanporaketa. Ondoren, txaranga ibiliko da herriko kaleetan.

Oharrak:

- Gazta dastatzeko aukera izango da.
- Mami dastatzeko aukera izango da.
- Gazta onena sarituko da, jendearen iritzia kontutan hartuta.
- Artzainen postu dotoreena sarituko da.
- Gazta ketzen ikusteko aukera egongo da.
- Autobusa jarriko da aparkalekueetatik herrira.

Itsasondo

Urkiko jaiak

Maiatzak 2, larunbata:

18:00etan: Suziri jautiketa jaiak hasteko.

18:00etan: XXVI. Mus txapelketa herrikoia.

21:00etan: Lagunarteko afaria elkartean.

23:00etan: Laja eta Mikel trikitilariak.

Maiatzak 3, igandea: Gurutze Deunaren eguna:

10:00etan: Meza nagusia.

11:00etan: Hamaiketako Olarte Anaiak trikitilariekin.

14:30ean: Bazkaria.

18:30ean: Emakumezkoen toka txapelketa.

19:00etan: XXVII. Gizonezkoen toka txapelketa.

20:00etan: Olarte Anaiak trikitilariak.

Oharrak:

- Jai guztietan zehar, antxuma bat zozketatuko da. Zerbaki sariduna igandean iluntzeko 8etan aterako da.
- Larunbaterako afarira edo igandeko bazkarira joateko maiatzak 1 baino lehen deitu 943889367 zenbakira.

Sendabelar ikastaroa

Apirilaren 21etik maiatzaren 28ra arte, astearte eta ostegunetan, sendabelar ikastaroa izango da.

Ataun

Oñatiko Ganbara Txiki koralaren emanaldia

Maiatzaren 8an, arratsaldeko 7etan, Herri Antzokian, Oñatiko Ganbara Txiki koralaren kontzertua izango da, Udalak eta Lazkao Txiki musika eskolak antolatuta. Sarrera dohainik izango da.

Ordizia

‘Erreka Mari’ txotxongiloak

Apirilaren 28an, arratsaldeko 5,30etan, ‘Erreka Mari’ txotxongilo emanaldia izango da, Barrenako areto nagusian, Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzua eta Hitzaro elkarteak antolatuta.

Beasain

Arrastakarekin San Fausto eskalada eskolara

Apirilaren 25ean eta 26an, Arrastaka Mendi Taldeak antolatuta, Lizarrako San Fausto eskalada eskolara joateko aukera dago. Kirol eskalada egiten hasi nahi dutenentzat hastapen-ikastaroa emango da bertan. Itteera honetan parte hartu ahal izateko derrigorrezkoa da mendiko federatu txartela izatea.

Olaberria

II. Olaberria argazki lehiaketa

2010. urteko Olaberriko egutegian argitaratzeko argazki lehiaketa antolatu du Olaberriko udalak. Gaia, Olaberria da. Edozeinek parte har dezake bertan. Argazkilari bakoitzak launa argazki aurkeztu beharko ditu, bakoitzak, gai ezberdinari buruzkoa. Lau sari banatuko dira: lehenengorentzat, 350 euro eta garaikurra; bigarrenarentzat 250 euro eta garaikurra; hirugarrenarentzat, 150 euro eta garaikurra; eta herritar onenarentzat, 100 euro eta garaikurra.

Olaberriko udaleko Kultura Sailera bidali behar dira lanak, 2009ko urriaren 1a baino lehenago.

saltzeko
erosteko
eskaintzeko
eskatzeko
aurkitzeko
...

zure-azoka

Erregistratu zaitez
eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

norbanakoak
doan

enpresak
leku eskusiboa

*jarri zure
iragarkia!*

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa
100.000aleko zabalkundearekin.

xii.gazta eguna

2 0 0 9 k o
maiatzak 3 igandea

Apirilak 28, Asteartea

19:00etan: Jatorri izendapeneko aditu batekin IDIAZABAL GAZTA ezberdinen dastaketa.

Apirilak 30, Osteguna

18:30ean: Herriko X. Mami txapelketa.

19:00etan: Hitzaldia Iker Markinez sukaldariarekin.

Maiatzak 2, Larunbata

17:00etan: Euskal artzai-txakur lehiaketa Arizkorreta ondoko belardian.

Ondoren triki-kantu poteoa herriko tabernetan herriko trikitilariarekin.

Maiatzak 3, igandea

XII. Gazta Eguna

10:00etan: Artzainek postuak irekiko dituzte.

11:00etan: Herriko artzainak gazta egiten hasiko dira era zahar eta modernoan.

11:30ean: Gazta ketzen eta ardi mozte ikuskizuna, eskuz eta makinaz.

13:00etan: Omenaldia Inazio Berasategi herriko artzaiari.

13:30ean: Sari banaketak: postu dotoreenari eta gazta onenari.

Arratsaldean Urrezko aizkoraren kanporaketa.

idiazabal

Oharrak:

Gazta doan dastatzeko aukera izango da.

Mamia dastatzeko aukera izango da.

Jendeak gazta onena hautatzeko aukera izango du.

Gazta ketzen ikusteko aukera izango da.

Autobusa ibiliko da etengabe aparkalekuetatik herri kaxkora.





Antzar Gazteak txaranga 1987 urtean

Mila Aldasorok utzi digun argazkia 1987ko Lazkaoko jaietan ateratakoa da. Bertan Antzar Gazteak txaranga ageri da Jose Manuel Bergara, bizkarrez, zuzendari dutela. Aurrean danborra jotzen ari den mutikoa bere seme Aitor Bergara da. Txarangako partaideetatik ondorengoak ageri dira argazkian:

Ezkerretik eskuinera: Unai Insausti, Maria Elena Belber, Urko Irastorza, Anartz Bergara, Aitzol Arruabarrea, Garbiñe Arruabarrena, Oier Goñi, Amaia Oiarbide, Doltza Barandiaran, Ane Agurne Alvarez eta Arkaitz Mendia.



biok
zerbitzuak

kudeaketa

fiskala

kontablea

merkatala

laborala

Tel 943 88 44 00

Faxa 943 80 51 27

www.biokzerbitzuak.com

Ordizia Urdaneta, 7

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

**Mota guztietako
gida-baimenak**

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



ALTAMIR

JATETXEA

Altamiran sukaldaritza maite dugu.
Gure plateren barne muina sasoiko
lehengaiak ardura bereziz elkartzean
datza...

hau, kontzeptu eta sentsazio berriak
ezagutu ditzazun egiten dugu...
zuk eta zure dastamenak hamaika
zapora eta ukituz goza dezazuen.

Altamirako kirolgunea
20240 Ordizia Gipuzkoa
T 685 794 755
altamira@igeri.net

faktore

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJ

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



ate irekiak:
maizak 9

Goierrri
lanbide eskola,
bost arrazoi*
bete-bete
asmatzeko!

1. Aukera zabalena
2. Etorkizuneko
3. Enprekin elkarlanean
4. Zuretzat egina
5. Ikasteko eredu aurreratua

batxilergoa eta heziketa zikloak egiteko biderik onena